

Parte-hartzeko prestakuntza- ikastaroak

2022ko MAIATZA-EKAINA



Aurkibidea

ZENTRO. ELKARLANEKO GUNEA	4
PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA. PRESTAKUNTZA NAHIERAN, GIZARTE-ERAKUNDEENDAKO	5
ARGIBIDEAK ETA AURRETIKO IZEN-EMATEAK	6
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	7
- Gizarte-trebetasunak	8
- Partaidetza-tresnak	10
- Gizarteratzea	15
- Elkarteen kudeaketa	17
- Trebetasun teknologikoak	20
- Kulturartekotasuna	21
EGUTEGIA	23

Zentro Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorraren barruan dago. Guneak xede du udalerriko kolektiboak eta eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa.
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua. Partaidetzarako prestakuntza.
- Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua

DABERRIAN, JARRAITZEN DUGU!

Herritarren partaidetzaren arloko prestakuntza-ikastaroen programazio honek maiatz-ekainerako ikastaroak biltzen ditu, aurrez aurrekoak edota online formatukoak. Une oro beteko dira jardura guztiak seguruak izan daitezen ezarritako neurri soziosanitarioak. Programazioan egon daitezkeen aldaketak une bakoitzean egoerara eta ezarritako neurrietara egokitzeke izanen dira.

Helburu du:

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarren eta profesionalen eskura jartzea.
- Gizarte-loturak eta herritar aktiboak sustatzea.
- Lankidetzaren dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapeneren alde egiten duten herritarren artean.
- Gaitze-prozesuak garatzea, hiriko eragile sozialei zuzenduak, partaidetzan eta herritartasun aktiboko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezen eta gogoeta egin dezaten.

Nori zuzendua:

Gizarte zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarte, kolektibo eta entitateei, Udalari eta Administrazio Publikoari (politikariei eta teknikariei) eta arlo sozio-komunitarioko langileei (gizarte-hezkuntza, -kultura, -osasun, -ingurumen eta abarrekoei).

Informazioa eta harremanetarako datuak

Tel. 948 42 02 66
Emaila formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea <http://participa.pamplona.es/>
<https://erabaki.pamplona.es>

Youtube: [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)

Facebook: Parte Hartu Iruña

Twitter: @partehartu_iru

Flickr: [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona)

Partaidetza- rako pres- takuntza.

Prestakuntza nahieran, gizarte entita- teendako.

Herritarren Partaidetzak 17 ikastaro eskaintzen ditu 2022ko maiatzean eta ekainean, euskaraz eta gaztelaniaz, hala herritarrei nola kolektibo zein elkarteei zuzenduak. Hona hiruhileko honetan zedarritu diren ildoak:

- Gizarte-trebetasunak
- Partaidetza-tresnak
- Gizarteratzea
- Elkarteen kudeaketa
- Trebetasun teknologikoak
- Kulturartekotasuna

Zer eskaintzen dugu?

Hainbat prestakuntza- eta sustapen-zerbitzu eskaintzen dira

- Etengabeko prestakuntza (hiruhilekoa)
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako)
- Prestakuntza elkarteekin (Alorraren partaidetza-prestakuntzarako dirulaguntzen bidez)
- Partaidetza sustatzeko hainbat jarduketa mota antolatzea, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, argitalpen propioak...

Nola lagundu? Prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa

Herritarren Partaidetzak prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa bat sortu du, prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten profesionalak edo enpresek proposamena egiteko aukera izan dezaten. Halaber, prestatzaileen elkarteekiko hartu-emanak erraztuko dira, betiere beharrak kontuan hartuta.

Prestatzaileen poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauez osatua:

- Aurkezpen-gutuna
- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae

Hona bidali

formacion.participacion@pamplona.es

Matrikula doan

Argibide gehiago

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza
eta Gazteriako Alorra
Zentro, elkarlaneko gunea.

Argibideak eta behin-behineko izen-emateak:

- **18 urtetik gorakoendako,** ikastaro jakin batzuetan izan ezik; kasu horietan, prestakuntza-jarduerari buruzko informazioan zehaztuko da.
- Behin-behineko izen-ematea egiteko epeak berariaz zehazten dira ikastaro bakoitzean. Irizpide orokor gisa, **behin-behineko izen-ematea egiteko epea apirilaren amaieran zabalduko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino bi aste lehenago itxiko.**
- **Ikastaro batzuk euskaraz eskaintzen dira, beste batzuk, gaztelaniaz.**
- Behin-behineko izen-ematea egiteko, onlineko formulario bat bete beharko da nahitaez ikastaro bakoitzeko participa. pamplona.es webgunean sartuta.
- Behin-behineko izen-ematearen epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
- **Onartuek izen-ematea berretsiko dute behin betiko izena emanez.**
- Parte-hartzaileak onartuko dira, ikastaro bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua osatu arte.
- **Izena eman baduzu baina ezin bazara ikastarora etorri,** ikastaroa hasi aurretik jakinarazi, mesedez. Jardueran baja ematen baduzu, beste pertsona batek izena ematen ahalko du zuk libre utzi duzun lekuan.
- Ikastaroren baterako eskaintako lekuak baino eskaera gehiago badira, ikastaro bakoitzaren berariazko irizpideen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak, betiere Iruñean erroldatuta egon eta bizi direnei lehentasuna emanez.
- Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 85era agertu ez diren pertsonen kasua, eta ikastaroren batean lan pertsonala egiten bada, hura entregatu ez izana.
- Halaber, **bertaratze-agiria emanen zaie** ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.
- Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren ikastaroak bertan behera utz daitezke.

Etengabeko prestakuntza

EDUKIA

1. GIZARTE-TREBETASUNAK	8
1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea eta asertibitatea	8
1.2. Emozioen boterea (gaztelaniaz)	9
1.3. Emozioen boterea (euskaraz)	9
2. PARTAIDETZA-TRESNAK	10
2.1. Prozesu kolektiboen bideratze grafiko eta estrategikoa: adimen partizipatiboa piztea, Visual Thinking delakoaren bidez	10
2.2. Bizikidetza sustatzea: bitartekarien esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak.	11
2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)	12
2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)	12
2.5. 2030 Agenda: pertsona guztiendako ibilbide-orria, mundu justu, bidezko, solidario eta indarkeriarik gabea lortze aldera (16. eta 17. GJHak)	13
2.6. Clown-a egin - Gizarte Sentsibilizazioa	14
3. GIZARTERATZEA	15
3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala	15
3.2. Herritartasun inklusiboa: migrazioa, asiloa eta aterpea. Interseksionalitateetik abiatutako begirada.	16
4. ELKARTEEN KUDEAKETA	17
4.1. Interesgarria zure elkartearentzat: nola irakurri eta ulertu dirulaguntza-deialdi bat	17
4.2. Relaciona-T: udal-baliabide eta -tresnak eta dirulaguntzen izapidetze elektronikoa irabazi-asmorik gabeko entitateentzat	18
4.3. Bestelako modu bat ekonomia eta finantziario etiko eta solidarioa egiteko eta ulertzeko	19
5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK	20
5.1. Sare sozialetarako edukiak sortzea	20
6. KULTURARTEKOTASUNA	21
6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?	21
6.2. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa	22
EGUTEGIA	23

1. Gizarte- trebetasunak

Datak

Ekainak 10 eta 11

Ordutegia

Ostiralean, 17:00 - 21:00

Larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00.

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 29ra arte.

1.1 PERTSONEN ARTEKO GATAZKAK KUDEATZEA ETA ASERTIBITATEA

Oihu bakoitzaren atzean behar bat dago.

Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea zaila da, eta epaitzea nahiz errua botatzea ekar dezake. Baina gatazka opari gisa ere ikus dezakegu, eta aukera baliatu gure beharrez jabetzeko, horiek mahaiaren gainean jarri eta horiek zaintzeko lehen urratsa bilatzeko.

Indarkeriarik Gabeko Komunikazioak urrats argiak eta giltzarriak eskaintzen ditu komunikazioan; ulermena, argitasuna eta ekintza bilatzen ditu eta tresna indartsua da enpatia izateko eta gatazkak kudeatzeko.

Helburuak

- Indarkeriarik Gabeko Komunikazioa ezagutzea.
- Pertsonen barruko eta pertsonen arteko gatazkak kudeatzen ikastea.
- Enpatia-gakoak ezagutzea.
- Gure sentimenduen eginkizuna ezagutzea eta horiek baliatzea geure burua eta besteak zaintzeko.

Edukiak

- Mezu bat jasotzeko 4 modu.
- Mugak: Entzutea eta ezetza adieraztea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Esker ona.

Garapen pertsonaleko lantegiak alderdi teorikoa eta praktikoa ditu, gogoeta-proposamenekin eta banakako dinamikekin, bikoteka eta taldean edukiak eguneroko egoeretan esperimentatzeko.

Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Franziska Rautenberg.

Psikologoa (tituluduna Alemaniako FU-Berlingo Unibertsitatean <http://www.ewi-psy.fu-berlin.de/>), terapeuta sistemikoa familia eta bikoteetan (Euskadi eta Nafarroako Familia Terapiako Eskola). Indarkeriarik gabeko Komunikazioko prestatzaile egiaztatua CNVC-n. Bideratzailea Embodied Peacemaking-ean.

1. Gizarte- trebetasunak

Datak

Gaztelaniaz: maiatzak 13 eta 14
Euskaraz: ekainak 3 eta 4

Ordutegia

Ostiraletan, 17:00 - 21:00; eta
Larunbatetan, 10:00 - 14:00

Tokia

ZENTRO elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 10era arte gaztelaniazkoan,
eta maiatzaren 29ra arte euskarazkoan.

1.2. ETA 1.3. EMOZIOEN BOTEREA

Psikologia positiboaren aitzindari Martin Seligmanek adierazitakoarekin bat, emozio positiboak bakarrik nahiko bagenitu, gure espeziea aspaldi desagertuko zen. Izan ere, beldurra, amorrua edo tristurari esker bizirik diraugu eta gure beharrak komunikatzen ditugu. Emozioak ez dira onak edo txarrak, entzuten ikasi behar dugun mezu bat ematen diguten erreakzioak dira, besterik ez. Bizipen-ikastaro praktikoa honek gonbit egiten digu emozio guztiak onartu eta horiek gure aliatu bilaka ditzagun, horrela gure egunerokoan ongizate handiagoa lortze aldera.

Helburuak

Emozioei lotutako sinesmen mugatzaileak identifikatzea. Emozioen intentsitatea kudeatzen eta antolatzen jakitea. Sentitu, pentsatu eta esaten dugunaren arteko koherentzia handitzea.

Ingurunean egoera emozional positiboak sortzeko tresnak eskuratzea.

Gainerako parte-hartzaileen esperientzietatik ikastea.

Edukiak

Emozio unibertsalak vs Emozio subjektiboak
Emozioen ezaugarriak, funtzioa eta gorputz-adierazpena.
Ziklo emozionala eta desblokeo emozionala.
Berariazko egoera emozionalak sortzea.

Hainbat diziplinatan oinarritutako dinamikak erabiliko dira, hala nola coachingean, programazio neurolinguistikokoan eta Alba Emoting metodoan. Sormen-ariketak, erlaxatzekoak eta gorputz-adierazpenekoak ere egingen dira, musikaz lagunduta.

Iraupena: 8 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena.

Egiaztagiria duen coach-a, Trainer masterduna Programazio Neurolinguistikokoan (PNL) eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizentziaduna.

2. Partaidetza-tresnak

Datak

Maiatzak 20, 21, 27 eta 28

Ordutegia

Ostiraletan, 17:00 - 20:30; eta
Larunbatetan, 10:00 - 14:00

Tokia

ZENTRO elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 10era arte.

2.1 PROZESU KOLEKTIBOEN BIDERATZE GRAFIKO ETA ESTRATEGIKOA: ADIMEN PARTIZIPATIBOA PIZTEA, VISUAL THINKING DELAKOAREN BIDEZ

Visual Thinking pentsaera bisualaren tresna bat da, eta kontzeptu-marrazketa delakoan du oinarria, non marrazki soil eta erabilgarri batek, gako-hitz eta mezu esanguratsuekin konbinaturik, aukera ematen duen bisualki irudikatzeko edozein komunikazio-ekintzaren edo edukiren kontzeptu eta ideia giltzarriak. Ez da marrazki preziosista edo ilustraziokoa (ez da ongi marrazten jakin behar bideratze grafikoa egiteko), baizik eta marrazki eskematiko nabaria, baina esanahi osoa duena.

Visual Thinking tresna eraginkorra da, era berean, adimen kolektiboa aktibatze eta partaidetza-prozesuetako bilketa estrategikorako.

Edukiak

Tresna metodologikoaren hastapenak.

Ikusizko komunikazioaren gakoak: oinarriak. Ikusizko pentsamenduaren teoria eta prozesua.

Nola eta zertarako egiten da bideratze grafikoa (Visual Thinking)?

Kontzeptu-marrazketaren oinarrizko osagaiak eta konposizio desberdinak. Visual Thinking-aren zenbait erabilgarritasun eremu profesionalean.

Visual Thinking-aren zenbait teknika.

Ikusizko liburutegi pertsonala. Sketchnoting-a. Sintesi grafikoak. Ikusizko munduen txantiloia.

Visual Thinking-a aplikatzea prozesu kolektiboetan.

Zer da uzta estrategikoa eta hura nola diseinatu? Ikusizko bideraketa eta dokumentazio grafikoa (graphic recording-a): edertasuna vs. erabilgarritasuna eta sistematizazioa.

Helburuak

Ikusizko komunikazioaren oinarriak eta ikusizko pentsamenduaren prozesua ezagutzea.

Kontzeptu-marrazketa eta Gramatika Garbiaren oinarriak ezagutzea.

Visual Thinking-aren teknika nagusietako batzuk ikastea: sketchnoting-a, sintesi grafikoak eta ikusizko munduak.

Visual Thinking-aren zenbait lan-erabilgarritasun ezagutzea.

Visual Thinking-a talde-dinamizazioetan nola erabili ikastea.

Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Mercedes Corretge Arrastia.

Visual Thinking-eko prestatzailea eta dokumentatzailea grafikoa.

2. Partaidetza-tresnak

Datak

Maiatzak 16, 17, 23, 30 eta 31.

Ordutegia

Astelehen eta asteartean, 17:00 – 20:00

Tokia

ZENTRO elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 8ra arte.

2.2 BIZIKIDETZA SUSTATZEA: BITARTEKARIEN ESKU-HARTZEETARAKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK.

Komunitate-inguruneen ongizatea ez da berez ematen, pixkanaka-pixkanaka eraikitzen da, eta indartu egiten da elkarren arteko topaketarekin eta bestearen eta besteen arteko topaketarekin eta ezagutzarekin. Ezagutzatik eta aitortzatik bakarrik has gaitezke pertsonen berdintasunaren alde lan egiten: ezagutzen badut bakarrik izan dezaket enpatia. Elkar ezagutzeko, elkarrekin hitz egin eta elkarri entzun behar diogu, eta bestea komunitateaz bestelakoa eta okerragoa delako ustea eraitsi.

Bizikidetzaren sustapenean lan egiteko, tresna eraginkorren oinarritzko ezagutzak behar dira berariazko prozesu eta teknikei buruz. Ikastaro honetan, modu praktikoa landuko ditugu tresnak eta metodologia bakoitzaren egokitasuna.

Xedea da pertsonak gaitzea esku-hartze komunitarioko metodologiak helburuetara egokitzeko: metodologia parte-hartzaileak, esku-hartze bitartekariak, lankidetzak-espazioak, arbitrajeak, etab.

Edukiak

Bestearekiko beldurra: topaketa eta konexioa gizarte-kohesioaren motore gisa.
Metodologiaren egokitzapena: bitartekaritza, arbitrajeak, parte-hartzea eta lankidetzak.
Gutxieneko baldintzak inguruan, esku-hartze bitartekariak egin ahal izateko.
Gatazkak konpontzeko estrategiak eta metodoak, komunitatearen testuingurura aplikatuta.
Pertsonen arteko elkarriketarako espazioak bideratzeko tresna eraginkorrak.

Helburuak

Gatazkak diagnostikatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.
Gatazkak kudeatzeko metodologiak esparru komunitariora egokitzen ikastea.
Auzo/komunitate-espazioetan esku-hartze bitartekariak egiteko estrategiak eta tresnak eskuratzea.

Metodologia

Entzutea, komunikaziorako ingurune seguru bat eratzea oso garrantzitsua da ikasketa esanguratsurako. Bizipenezko jarduerak izanen dira. Dinamikak, eztabaida, bideoak, roll playing-a, banakako gogoeta eta talde-lanaren bidez gauzatuko dira, ikasketa errazteko.

Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Maite Eraso Ascunce.

Gizarte-langilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.

2. Partaidetza-tresnak

Data

Gaztelaniaz: maiatzak 24 eta 31 (asteartea)
Euskaraz: maiatzak 25 (asteazkena) eta ekainak 1

Ordutegia

17:00 - 19:00

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 10era arte.

2.3. ETA 2.4. BILEREN DINAMIZAZIOA

Modu praktikoan eta dinamikoan bileren eta topaketen funtzionamendura bideratuko den prestakuntza, elkarteendako eta, oro har, herritarrendako. Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren esperientzian oinarritutako oinarritzko alderdiak landuko dira.

Edukiak

Bilera eraginkor baterako aholkuak.
Bilera baten faseak.
Dinamikak.
Esperientzia praktikoak.

Helburuak

Oinarritzko ezagutza orokorrak eta atariko ezagutza praktikoak eskuratzea, bilerak dinamizatzeko.

Iraupena: 4 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua.

2. Partaidetza-tresnak

Datak

Maiatzak 19

Ordutegia

Ostegunean, 17:00 - 19:00

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 9ra arte.

2.5. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK: SARRERA. DENONDAKO OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)

Ikastaro teoriko-praktiko honetan aukera izanen duzu NBEk 2015ean proposatutako 2030 Agenda ezagutzeko, anbizio handiko plana, xede duena planeta eta gizakiak errespetatzen dituen oparotasuna lortzea. Plan hori aurrera eramateko, Lurreko gizaki guztiak engaiatu behar dira. Horrela, 2030 Agendak gonbit egiten digu erantzun koordinatua eta eraginkorra egin dezagun, hala arlo publikoan nola norbanakoan. Ikastaroan Garapen Jasangarriko 17 Helburuen ikuspegi orokorra landuko da, baina bereziki sakonduko da 16. GJHan ("Bakea, justizia eta erakunde sendoak") eta 17. GJHan ("Aliantzak, helburuak lortzeko"). Ezagutu aldaketarako eragile izateko duzun ahalmena FABRE Fundazioaren eta UNRWArek eskutik.

Edukiak

Sarrera 2030 Agendara, eta garapen jasangarriaren eta 17 GJHen esanahia.
16. eta 17. GJHak.
Gatazka armatuen errealitatea, ondorio humanitarioak.
Zer egin dezakegu guk mundu bidezkoago, zuzenago eta solidarioagoa eraikitzeko.
Ihes-jokoaren dinamika, ezagutu Palestinako errefuxiatuen errealitatea.

Helburuak

Gatazka armatuen errealitateari buruz sentsibilizatzea.
Bizikidetzak eta bakearen balioak sustatzea.
Gizarte-aldaketa eta eragin globala duten tokiko ekimenak sustatzea.

Metodologia teoriko-praktikoa, hainbat dinamika ludiko eta partizipatibo egingen dira.

Iraupena: 2 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Elena Zunzunegui (Fabre Fundazioa) eta Javier Moreno (UNRWA).

2. Partaidetza-tresnak

Datak

Ekainak 4

Ordutegia

Larunbatean, 10:00 - 13:00

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 29ra arte.

2.6. CLOWN-A EGIN - GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Gune honetan emozio kolektibo eta banakakoen mundu bat aztertuko dugu libreki adieraztera animatzen duten keinu, gorputz-adierazpen eta antzerki-jolasen bidez; terapia horren bidez, giza-barrualdea konektatzen da haren memoria eta sentitzetik abiatuta sendatze emozionaleko askotariko sorkuntza-aukerekin.

Edukiak

Gorputz-terapia, jolasak eta keinuak.
Sorkuntza eszeniko kolektiboa.
Diseinua eta eskulana.
Inprobisazioa.
Eszenaratzea.

Helburuak

Informatzea eta sentsibilizatzea giza-eskubideez, herritarren migrazioaz, oro har, pertsonaien parte hartzearekin eta sudur gorrien antzerki-teknika baliatuta.

Iraupena: 3 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Franklin Tovar eta Jared Andino (Fénix elkarte)

3. Gizarteratzea

Data

Ekainak 9

Ordutegia

Ostegunean, 18:00 – 20:00

Tokia

ZENTRO elkarlaneko gunea
(Kondestablearen jauregia), Kale
Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Ekainaren 2ra arte

3.1 GIZARTE MENTORETZA: LAGUNTZA INFORMALA

Gizarte mentoretza da beren burua borondatez eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzea, aukera-
ezberdintasun egoeran dagoen beste pertsona bati banakako laguntza emateko, kasu honetan, Nafarroan inoren kargu ez dauden gazte atzerritarrei. Lantegia gizartean esku-hartzeko metodologia horretara hurbiltzen da, eta onura ugari dakarzkie egitasmoan bai parte hartzaile diren mentoregaiei baita mentore lana egiten dutenei ere.

Helburuak

Gizarte mentoretza laguntza ez-formalerako tresna bezala ezagutaraztea

Edukiak

Lantegiaren edukiak dira proiektu experimentalaz azalpenak eta inoren kargura ez dauden migratzaileak gizarteratzeko tresna gisa gizarte mentoretza erabiltzeaz azalpenak. Sarrera: gizarte mentoretza. Gizarte mentoretzaren ahalmenak gizarte ekintzan. Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa gizarte mentoretzaren bidez. Mentorearen rola eta bere ingurunea. Mentorearen profila. Gizarte mentoretzako esperientziak Nafarroan. Kideak programa. Eztabaida eta iritziak trukatzeko. Galderak.

Iraupena: 2 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Unai Esparza Ezkurra (Gizarte Mentoretza Kideak programa), ZAKAN Soziala

3. Gizarteratzea

Data

Ekainak 7 eta 8

Ordutegia

Astearte eta asteazkenean, 18:30 - 20:30

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 29ra arte

3.2. HERRITARTASUN INKLUSIBOA: MIGRAZIOA, ASILOA ETA ATERPEA. INTERSEKZIONALITATETIK ABIATUTAKO BEGIRADA.

Aurkezpena egingen da Fénix elkartearen jatorriari buruz eta egiten dituen zerbitzu, proiektu eta boluntario-planari buruz. Aldi berean, hitzaldi bat emanen da asiloari eta aterpeari buruz, oro har, gai horien inguruan informatzeko honako galdera hau abiapuntu hartuta: zergatik pertsona migratzaile eta errefuxiatuen elkarte bat?

Halaber, herritarren artean gizarteratzea eta harrera bultzatzearen garrantzia jorratuko da, eta gizarteratzeko estrategia-dinamikak landuko dira, hala banakakoak nola gizartekoak.

Helburuak

Fénix elkarteak Nafarroan dituen zerbitzu, ekintza eta proiektuak aurkeztea eta horien inguruko informazioa ematea herritarrei, oro har, eta boluntariotza eta asoziazionismoa sustatzea.

Edukiak

Fénix elkartearen aurkezpena.
Lan-ildo eta proiektuen aurkezpena.
Boluntariotza-plana.
Asilo eta babesari buruzko hitzaldia.
Eztabaida eta iritzien trukea.
Amaiera.

Iraupena: 4 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Jared Andino eta Franklin Tovar (Fénix elkarte)

4. Elkarteen kudeaketa

Data

Maiatzak 6

Ordutegia

Ostirala, 17:00 – 20:00.

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 5era arte.

4.1. INTERESGARRIA ZURE ELKARTEARENTZAT: NOLA IRAKURRI ETA ULERTU DIRULAGUNTZA-DEIALDI BAT

Askotan, irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateetan finantzazioa bilatzeko ardura duten pertsonak dirulaguntza-deialdiak ulertzeko zailtasunak dituzte. Eragozpen gehigarriak dira terminologia juridikoa, onartutako gastu desberdinak eta aurkezteko eta justifikatzeko epeak. Oraingo honetan, hainbat deialdiri aurre egiteko gakoak ezagutzeko aukera izanen dugu, eta proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko funtsezko kontuak jorratuko ditugu, betiere nahi den eragina izan eta finantziario nahikoa edukitzeko bermeekin.

Edukiak

Dirulaguntza-deialdiak: motak.
Deialdien oinarrizko eskema.
Deialdien terminologia eta korrelazioa gure proiektuarekin.
Deialdiei buruzko informazioa.
Proiektu bat osatzeko oinarrizko eskema.
Adibideak.

Iraupena: 3 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Ana Belén Albero Díaz,

abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa.

4. Elkarteen kudeaketa

Data

Maiatzak 27

Ordutegia

Ostirala, 17:00 – 20:00.

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 16ra arte.

4.2. RELACIONA-T: UDAL-BALIABIDE ETA -TRESNAK ETA DIRULAGUNTZEN IZAPIDETZE ELEKTRONIKOA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATEENTZAT

Ikastaroan ezagutuko dugu zer udal-baliabide eta -tresna dauden irabazi-asmorik gabeko entitateentzat eta nola izan harremanak telematikoki Udalarekin dirulaguntza bat eskatzeko edo justifikatzeko orduan, kudeaketa hori errazago egiteko asmoz eta Administrazioarekin izapideak edo prozedurak elektronikoki egiteko behar den autonomia lortzeko.

Edukiak

Zentro, elkarlaneko gunea: zerbitzuak, liburutegia, baliabideak.

Baliabide digitalak: elkarteen ataria. Iruñategi. Webgunea. Aholkularitza-zerbitzuak: aholkularitza juridikoa, proiektuak laguntzekoa eta dirulaguntzetarakoa.

Identifikazio digitala: pertsona fisikoaren ziurtagiria eta pertsona juridikoaren ziurtagiria. Sinadura elektronikoa. Ziurtagiriak eskatzea eta dirulaguntzen izapidetzea.

Iraupena: 3 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Ana Belén Albero Díaz,

abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa.

4. Elkarteen kudeaketa

Data

Ekainak 1 eta 8

Ordutegia

17etatik 20etara

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 23ra arte

4.3. BESTELAKO MODU BAT EKONOMIA ETA FINANTZIAZIO ETIKO ETA SOLIDARIOA EGITEKO ETA ULERTZEKO

Edukiak

Ikastaroa zenbait zatitan banatuko da; lehenik, azalduko dugu nola ulertzen duen Ekonomia Sozial eta Solidarioak bizi dugun sistema.

Jarraian, bi entitate aurkeztuko ditugu; alde batetik, Coop57, finantza-zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatiba, gizarte zibilararen aurrekia bildu eta hura bideratzen duena ekonomia sozial eta solidarioko entitateak finantzatzera. Eta, bestetik, Olatukoop, enpresa, elkarrekin eta kooperatiben sarea, ekonomian modu eraldatzailean lan egiten duena xede hartuta bermatzea hala kideen arteko elkartasuna nola gizartearen ongizatea eta horien jardura ekonomikoaren ekarpena ondare komunari.

Azkenik, proiektuen eta finantziazioen hainbat esperientzia jorratuko ditugu.

Helburuak

Ekonomia egiteko eta ulertzeko bestelako modu bat ezagutzera ematea, horrela beste aurrerapauso bat egiteko helburu nagusia lortzeko, alegia, gure ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa soziala, modu positiboan.

Metodologia

Hasteko, esparru teorikoa landuko dugu, bermatzeko azaltzen diren kasu praktikoetako esperientziak ongi ulertzen direla. Aurkezpen digitalak erabiliko ditugu, baita beste dokumenturen bat ere, edukia ulergarriago egiteko.

Iraupena: 6 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Coop57 Euskal Herria

5. Trebetasun teknologikoak

Datak

Ekainak 6, 8, 13 eta 15

Ordutegia

Astelehen eta asteazkenetan,
17:00 - 20:00

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean
(Kondestablearen jauregia), kale
Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 23ra arte

5.1. SARE SOZIALETARAKO EDUKIAK SORTZEA

Ikastaroan modu teoriko-praktikoan landuko ditugu sare sozialetarako hainbat eduki-mota sortzea, egunerokoan zer argitaratu behar duten ongi ez dakiten elkarte edo kolektiboek zuzenduta, hain zuzen, batzuek uste baitute ez dutela ezer garrantzitsurik esateko. Horrez gain, berritasun aipagarriak eta munta handiko gertaerak komunikatzean erabili beharreko edukiak landuko ditugu.

Helburuak:

Sare sozialak eraginkortasunez kudeatzeko oinarrizko ezagutzak.
Estetika- eta estrategia-irizpideak sortzea komunikatzeko orduan.

Edukiak

Sare sozialen kudeaketa antolatzea: egutegiak eta tresnak.
Kanpainak sortzea: kanalak aukeratzea eta optimizatzea.
Zer asmatuko dut gaur? Aspertu gabe komunikatzeko tresnak.
Estetika, hizkera eta estiloa: Eduki grafikoak sortzea.

Metodologia

Metodologia teoriko-praktikoa. Proiektu komun baten inguruan lan egingen da, taldeka, eta atal teorikoan ikasitakoa aplikatuko dugu. Horretarako, ikasle bakoitzak ordenagailu eramangarri bat ekarri beharko du eta sare sozialak ezagutu beharko ditu (erabiltzaile maila).

Google Classroom-ekin egingen da lan: materiala, egin beharreko ariketak eta ikasleen lanak igoko dira bertara.

Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Ane Aldaya Arriaza.

Komunikazio teknikaria eta Community Managerra.

6. Kulturarte-kotasuna

Datak

Maiatzak 13, 14, 19 eta 26, eta ekainak 2.

Ordutegia

Maiatzaren 13an, ostiralarekin, 17:00etatik 20:30era. Maiatzaren 14an, larunbarekin, 10:00etatik 14:00etara. Maiatzaren 19an eta 26an eta ekainaren 2an, ostegunarekin, 18:00etatik 20:30era.

Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 10era arte

6.1. NOLA EGIN AURRE GATAZKEI KULTUREN ARTEKO BURUZ-BURUKO KOMUNIKAZIOAN?

Komunikatzeak askoz ere gehiago eskatzen du hizkuntza bat partekatu eta esaldi gramatikalki zuzenak egitea baino, informazioa helaraziko badugu. Aurrez aurreko solasaldietan, adierazkortasun ezberdineko mezuak gertatzen dira, aldi berean, eta horrek erraztu edo zaildu egiten du komunikazioa.

Migratzaileek eta bertakoek osatutako talde mistoetan aztertuko dugu komunikazio-kultura ezberdinetako pertsonen arteko topaketa batzuetan sortzen diren gorabeheretan agertutako kultur elementuen eragina, horiei aurre egiteko gatazkak eragin baino lehen. Elkar ulertzea erraztu nahi dugu kulturen artean komunikazioa argiagoa eta eraginkorragoa izan dadin gero eta askotarikoagoa den hiri batean.

Helburuak

Kultura ezberdinetako pertsonen arteko komunikazioa ulertzea.
Praktikak eraikitzea dinamika gatazkatuak agertzea prebenitzeko, komunikazioa baliatuta.
Lankidetzako eta bitartekaritzako harremanak erraztea kulturarteko testuinguruetan.

Edukiak

Giza komunikazioa aurrez aurreko prozesu gisa. Hitzetatik haratago.
Elkarreragin komunikatiboaren neurriak.
Zer da kulturarteko komunikazioa?
Gertakari kritikoak kulturen arteko komunikazioan.
Gatazkak: motak eta dinamikak.
Pertsonen eta taldeen arteko gatazkak konpondu eta / edo eraldatzeko ereduak.

Metodologia

Gogoeta-ekintzako eredu pedagogikoa. Sarrera teorikoetatik abiatuta, parte-hartzaileek eguneroko testuinguruetan duten esperientziaren edukiak aurkezten dituzte.
Taldea ikaskuntza eta ikerketa gune gisa, non ohiko egoerak zehazten baitira, elkarlaneko komunikazioa erraztuko duten praktika alternatiboak batera sortzeko.

Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)

Nork emana: Blas Campos Hernández

BIDARI Prestakuntza eta Aholkularitza, Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Krisialdian esku-hartzeen espezialista. Diplomaduna profesionalen Orientazioan eta Gainbegiratzean. Familia-terapeuta sistemikoa.

6. Kulturarte-kotasuna

Data

Maiatzak 24, 26 eta 31 eta ekainak 2 eta 6

Ordutegia

16:00 - 19:00

Tokia

Online. Parte-hartzea baieztatzen denean emanen da esteka.

Behin-behineko izen-ematea

Maiatzaren 10era arte.

6.2. NOLA EGIN AURRE GORROTOAREN DISKURTSOARI ETA DESINFORMAZIOARI? ZIBERAKTIBISMOAREN ESTRATEGIAK ETA BERRIKUNTZA NARRATIBOA

Gezurrak, gorroto-diskurtsoak eta munduaren ikuspegi diskriminatzaileak nagusitzen ari dira Interneten. Aurreiritziak, zurrumurruak, gezurrak eta difamazioak (xenofoboak, arrazistak, islamofoboak, misoginoak, aporofoboak...) narratiba zapaltzaileetan artikulatzen dira, eta gaur egun errealtatearen interpretazio alboratu, oldarkor eta baztertzailea transmititzen ari dira. Prozesu horretan, sare sozialek zeregin bikoitza dute: gorrotoa zabaltzeko bide nagusia dira, eta, aldi berean, ezinbesteko aukera dira intolerantziaren eragina mugatzeko.

Nola egin diezaiokegu aurre erronka horri kontakizunak eraldatuz? Nola aprobeztatu ingurune digitalaren ahalmenak diskurtso baztertzailea online eztabaidagunez jabetu ez dadin? Nola eraiki eta komunika ditzakegu guztion istorioak, pertsonak mobilizatu daitezen?

Ikastaroan gai horiek landuko ditugu, eduki teoriko/kontzeptuala eta aniztasunari buruzko kontakizun berri bat kolektiboki eraikitza bideratutako garapen praktikoa uztartuko ditugu, kontakizun horrek inpaktu handiko ekintzak susta ditzan, baliabide digitalen bidez gizarteari jakinarazteko. Ondoren, online laguntza bat ere proposatzen dugu (ikasgela birtuala), ikasleei ziberaktibismo esku-hartzeetan laguntzeko. Metodologiak talentu kolektiboak jartzen ditu jokoan aurrez aztertutako gizarte-erronka bati erantzuteko -gorroto-diskurtsoak Interneten duen gorakadari, hain zuzen-, erantzun sortzaile, berritzaile eta eraginkorrak diseinatuta.

Edukiak

1. SAIOA: Kontzeptu orokorrak, komunikazioaren paradigma berria: polarizazioa, audientziak eta ziurgabetasuna. Mehatxuak eta aukerak COVID aroan...
2. SAIOA: Desinformazioa Interneten. Albiste faltsuei antzematea. Fact cheking-ean hasteko tresnak eta estrategiak. Kontragezurak zabaltzea. Jarduera praktikoa.
3. SAIOA: Zer da gorrotoaren diskurtsoa eta nola identifikatu. Kontranarratiba: estrategia indibidualak eta kolektiboak on eta off line. Algoritmoen erabilera sare sozialetan. Jarduera praktikoa.
4. SAIOA: Narratibaren kontzeptua: narratiba diskriminatzailea eta narratiba alternatiboa. Balioen teoria eta gizarte-psikologia kausen komunikazioari aplikatua...
5. SAIOA: Mezutik produktu digitalera. Ziberaktibismoa, transmedia eta disrupzioa. Elkarrekin sortzeko espazioa: ziberaktibismo-prototipoen hackatoia

Iraupena: 15 ordu (online)

Nork emana: Natalia Monje.

Historian lizentziaduna, Komunikabideetan masterra. Prentsa idatzia, telebista, Ecos do Sur-eko komunikazio-arduraduna. Gizarte-komunikazioan eta migrazioei buruzko komunikazioan 15 urteko ibilbidea duen kazetaria, gorroto-diskurtsoaren aurkako ziberaktibismoan eta fact checking-ean espezializatua.

Egutegia. Maiatza

1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- 1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea eta asertibitatea
- 1.2. Emozioen boterea
- 1.3. Emozioen boterea

2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- 2.1. Prozesu kolektiboen bideratze grafiko eta estrategikoa: adimen partizipatiboa piztea, visual thinking delakoaren bidez
- 2.2. Bizikidetzat sustatzea: bitartekarien esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak
- 2.3. Bileren dinamizazioa
- 2.4. Bileren dinamizazioa
- 2.5. 2030 Agenda: pertsona guztiendako ibilbide-orria, mundu justu, bidezko, solidario eta indarkeriarik gabeko lortze aldera (16. Eta 17. Gjhak)
- 2.6. Clown-a egin – gizarte sentsibilizazioa

3 GIZARTERATZEA

- 3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala
- 3.2. Herritartasun inklusiboa: migrazioa, asiloa eta aterpea. Interseksionalitateetik abiatutako begirada

4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- 4.1. Interesgarria zure elkartearentzat: nola irakurrieta ulertu dirulaguntza-deialdi bat
- 4.2. Relaciot: udal-baliabide eta -tresnak eta dirulaguntzen izapidetze elektronikoa irabazi-asmorik gabeko entitateentzat
- 4.3. Bestelako modu bat ekonomia eta finantziario etiko eta solidarioa egiteko eta ulertzeko

5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- 5.1. Sare sozialetarako edukiak sortzea

6 KULTURARTEKOTASUNA

- 6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?
- 6.2. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa

1	2	3	4	5	6 4.1	7
8	9	10	11	12	13 1.2 6.1	14 1.2 6.1
15	16 2.2	17 2.2	18	19 6.1 2.6	20 2.1	21 2.1
22	23 2.2	24 2.3 6.2	25 2.4	26 6.1 6.2	27 2.1 4.2	28 2.1
29	30 2.2	31 2.2 6.2 2.3				

Egutegia. Ekaina

1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- 1.1. Pertsonen arteko gatazkak kudeatzea eta asertibitatea
- 1.2. Emozioen boterea
- 1.3. Emozioen boterea

1	2	3	4
2.4	2.3	1.3	1.3
4.3	6.1		2.6
	6.2		

2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- 2.1. Prozesu kolektiboen bideratze grafiko eta estrategikoa: adimen partizipatiboa piztea, visual thinking delakoaren bidez
- 2.2. Bizikidetzat sustatzea: bitartekarien esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak
- 2.3. Bileren dinamizazioa
- 2.4. Bileren dinamizazioa
- 2.5. 2030 Agenda: pertsona guztiendako ibilbide-orria, mundu justu, bidezko, solidario eta indarkeriarik gabeko lortze aldera (16. Eta 17. Gjhak)
- 2.6. Clown-a egin – gizarte sentsibilizazioa

5	6	7	8	9	10	11
	5.1	3.2	4.3	3.1	1.1	1.1
	6.2		5.1			
			3.2			

12	13	14	15	16	17	18
	5.1		5.1			

19	20	21	22	23	24	25
----	----	----	----	----	----	----

3 GIZARTERATZEA

- 3.1. Gizarte mentoretza: laguntza informala
- 3.2. Herritartasun inklusiboa: migrazioa, asiloa eta aterpea. Interseksionalitateetik abiatutako begirada

26	27	28	29	30
----	----	----	----	----

4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- 4.1. Interesgarria zure elkartearentzat: nola irakurrieta ulertu dirulaguntza-deialdi bat
- 4.2. Relaciot: udal-baliabide eta -tresnak eta dirulaguntzen izapidetze elektronikoa irabazi-asmorik gabeko entitateentzat
- 4.3. Bestelako modu bat ekonomia eta finantziario etiko eta solidarioa egiteko eta ulertzeko

5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- 5.1. Sare sozialetarako edukiak sortzea

6 KULTURARTEKOTASUNA


- 6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?
- 6.2. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa




Informazioa eta harremanetarako datuak

Tfno 948 42 02 66
Email formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea <http://participa.pamplona.es/>
<https://erabaki.pamplona.es>

Youtube: [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)
Facebook: Parte Hartu Iruña
Twitter: @partehartu_iru
Flickr: [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona)



participa.pamplona.es/



erabaki.pamplona.es